Añanako Gatz Harana Fundazioaren gatz ontziratzeko zerbitzuaren kontratuan -2020an 417.970 euroren gehieneko aurrekontuaren (417.970euro) eta kontratuaren iraupen osoan gauzatutako zenbatekoaren (467.536) arteko desbideratzeak gastua % 11,86 handitzea ekarri du, % 10etik gora, exekutatu beharreko unitate-kopuruak izandako desbideratzearen ondorioz. Fundazioak "aurreikusi gabeko aldaketa"-espediente bat izapidetu behar zuen, SPKLn jasotako baldintzetan. Baldintza administratibo berezien agiriak ez zuen aurreikusitako unitate exekutatuaren aldean igoerarik izatea aurreikusten.

KONTRATU TXIKIAK

Añanako Gatz Harana Fundazioak zerbitzu eta hornidura hauek kontratatu ditu, dagokion kontratazio-prozedurarik gabe:

- Gatz garbitzeko handizkako zerbitzua, zeinak 2021eko ekitaldian 30.369 euroren gastua izan baitu eta prozedura irekiaren bidez lizitatu behar baitzatekeen.
- Kutxatilk hornitzea. 2021eko azaroaren 16an, Fundazioak prozedura ireki baten lizitazioa argitaratu zuen, eta prozedura hori hutsik geratu zen. Fundazioak publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliz esleitu behar zukeen kontratua. Ekitaldian egikaritutako zenbatekoa 21.580 euro izan da.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.8 DIRULAGUNTZEN ANALISIA

A.8.1 DIRULAGUNTZA IZENDUNAK ETA ZUZENAK

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	ZENBAT.		AKATSAK
	ERABILIA	KONPROMETITUA	
TOKI ERAKUNDEAK			
Gasteizen autobus elektriko adimendunari buruzko hitzarmena.....	3.213	240	-
Tranbea Salburura zabaltzea	1.388	2.697	-
Genero indarkeriaren aurkako hitzarm. 2020	217	-	-
IRABAZI ASMORIK GABEKO FAMILIAK ETA ERAKUNDEAK			
5+11 Fundazioa, ALHn prestakuntzako programa solidarioak antolatzea	400	-	-
A PLANA: Elkargi, enpresen finantzaketa	210	-	-
Kontsumoa indartzeko bonoen plan estrategikoa (*)	200	-	-
CIC Energigune Fundazioa	500	500	-
Instalazio fotovoltaikoa instalatzeko Arrato ureztatzaileen komunitatea ..	250	-	-
ARABAKO KULTURA BIZIA elkarteak (*).....	75	-	-
GUZTIRA	6.453	3.437	

(*) Dirulaguntza zuzenak



A.8.2 DEIALDI BIDEZ EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	ZENBAT.		AKATSAK
	ERABILIA	KONPROMETITUA	
TOKI ERAKUNDEAK			
Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2018-2019.....	22.023	874	-
Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2020-2021.....	6.723	26.588	-
Larrialdiko obretarako laguntzak.....	491	205	-
Obra txikiak egiteko laguntzak.....	2.420	-	-
Hirigintzako baliabideen finantzaketa.....	218	800	-
Elementu txikiak berroneratzea.....	277	-	-
ENPRESA PRIBATUAK			
Ekintzailletza Araban.....	618	-	-
A PLANA Ostalaritzari laguntza.....	489	-	-
A PLANA Merkataritza-jarduera.....	501	-	-
A PLANA Kontratazioa sustatzea.....	509	-	-
Eremu kaltetuak.....	1.486	-	-
Mendi publikoetarako laguntzak.....	540	557	-
Nekazal ustiaketan inbertsioak.....	1.060	1.472	-
Nekazari gazteek enpresak sortzea.....	513	256	-
Garraio publikoa finantzatzea Aiaran.....	838	-	-
Garraio publikoa finantzatzea Erdialdeko Araban.....	1.151	-	-
Garraio publikoa finantzatzea Arabako Errioxan.....	1.209	-	-
Durango-Gasteiz-Miranda garraio publikoa finantzatzea.....	317	-	-
AP-1 Tarifa laua.....	1.473	-	-
IRABAZI ASMORIK GABEKO FAMILIAK ETA ERAKUNDEAK			
Eskola-kirola.....	400	-	-
Kirol-federazioak.....	340	-	-
Irabazi asmorik gabeko erakund. prestakuntza-laguntzak.....	438	-	-
GUZTIRA	44.034	30.752	

A PLANA Arabako ekonomia eta gizartea suspertzeko plana, COVID-19 pandemiaren ondoriozko krisi sanitario, ekonomiko eta sozialaren eraginez. Plan honek premiazko neurri ekonomikoak ditu epe laburrera begira, eta aliantzetan eta sektore guztien parte-hartzean oinarritzen du bere estrategia; baita zirkuitu laburrean ere, tokiko kontsumoa krisitik ateratzeko gako nagusi gisa.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.9 ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU BATERATUAK

ALHren Kontu Bateratuak honako hauek dira:

A. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

DIRU-SARRERAK	AURREKONTUA			ESKUB. KITATUAK	DIRU-BILKETA GARBIA	KOB.R. GABE
	HASIERAK.	ALDAK.	AZKENA			
1. Zerga zuzenak	1.080.637	116.300	1.196.937	1.194.517	1.146.534	47.983
2. Zeharkako zergak	1.172.166	94.955	1.267.121	1.324.814	1.302.475	22.339
3. Tasak eta bestelako sarrerak	43.787	-	43.787	49.798	34.795	15.003
4. Transferentzia korronteak	90.835	77.945	168.780	206.767	168.707	38.060
5. Ondare-sarrerak.....	423	-	423	833	596	237
6. Inbertsio errealen besterentzea	531	-	531	962	866	96
7. Kapitalezko transferentziak.....	10.414	428	10.842	9.419	7.909	1.510
8. Aktibo finantzarioen bariazioa	17.273	22.178	39.451	189	187	2
9. Pasibo finantzarioen bariazioa.....	106.821	-	106.821	106.800	106.800	-
SARRERAK, GUZTIRA	2.522.887	311.806	2.834.693	2.894.099	2.768.869	125.230

Euroak milakotan

GASTUAK	AURREKONTUA			OBLIGAZ. LIKIDOA	ORDAINK. LIKIDOAK	ORDAINDU GABE
	HASIERAK.	ALDAK.	AZKENA			
1. Pertsonaleko gastuak.....	167.318	(63)	167.255	161.150	158.333	2.817
2. Ondasun korrante eta zerbitzuen erosk.....	158.998	137	159.135	148.410	132.347	16.063
3. Gastu finantzarioak.....	8.414	-	8.414	7.909	7.579	330
4. Transferentzia korronteak	2.012.617	270.892	2.283.509	2.275.478	2.222.728	52.750
6. Inbertsio errealak	59.185	19.011	78.196	43.996	34.490	9.506
7. Kapitalezko transferentziak.....	46.974	17.529	64.503	38.846	28.119	10.727
8. Aktibo finantzarioen bariazioa	3.060	4.300	7.360	7.062	2.762	4.300
9. Pasibo finantzarioen bariazioa.....	66.321	-	66.321	66.321	66.321	-
GASTUAK, GUZTIRA	2.522.887	311.806	2.834.693	2.749.172	2.652.679	96.493
SARRERAK - GASTUAK	-	-	-	144.927	116.190	28.737

B. AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIERAKO	BALIOG. ZORRA	KOBR./	AZKEN
	ZORRA		ORDAINK.	ZORRA
Zordunak	338.530	(12.188)	(55.298)	271.044
Hartzekodunak.....	(65.146)	869	63.005	(1.272)
GUZTIRA	273.384	(11.319)	7.707	269.772



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. EKITALDIAREN EMAITZA ETA DIRUZAINZTA GELDIKINA		Euroak milakotan
AURREKONTU KORRONTEA 2021		
Eskubide kitatuak		2.894.099
Obligazio aitortuak		(2.749.172)
AURREKONTU KORRONTEAREN SUPERABITA		144.927
EKITALDI ITXIAK		
Eskubide kitatuak baliogabetzea		(12.188)
Obligazio aitortuak baliogabetzea		869
EKITALDI ITXIEN DEFIZITA		(11.319)
Kaudimengab. zuzkid. aldak.		(31.472)
Horniduren bariazioa FEPEL		3.588
EKITALDIAREN EMAITZA		105.724
DIRUZAINZTA GELDIKINA 20.12.31n (finantziario desbideratzerik gabe)		126.333
Elkarfinantzatutako proiektuen finantzaketaren desbideratzeak		(5.346)
DIRUZAINZTA GELDIKINA 2021.12.31N		226.711
Doiketa finantzarioa		(28.217)
DOITUTAKO DIRUZAINZTA GELDIKINA 21.12.31n		198.494

D. EGOERAREN BALANTZE BATERATUA				Euroak milakotan	
AKTIBOA	2021	2020	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2021	2020
AKTIBO EZ-KORRONTEA	897.125	921.786	ONDARE GARBIA	488.629	434.439
Ibilgetu ukiezina	144.442	143.182	Ondarea	269.678	268.251
Ibilgetu materiala	678.300	702.381	Sortutako ondarea	198.047	141.891
Ibilgetuko inbertsioak	28.420	30.513	Balio aldatetarikoko doiketak	(26)	(185)
Finantza inbertsioak e/luz.			Bestelako ondare gehikuntzak		
taldeko enpresa eta elkartuetan	26.667	26.925	emaitzetara egozteko zain	20.930	24.482
Epe luz. finantza inbertsioak	19.296	18.785			
AKTIBO KORRONTEA	399.586	266.312	PASIBO EZ-KORRONTEA	558.062	525.152
Salgai dauden aktiboak	803	68	Epe luzeko hornidurak	1.531	1.213
Izakinak	28.172	27.530	E/luzeko zorrak	556.502	523.939
Zordunak eta kobr. bst. knt. b.	160.250	117.488	Taldeko erakunde eta elkartuekin		
Finantza inbertsioak e/lab.			epe luzeko zorrak	29	-
taldeko enpresa eta elkartuetan	2.856	2.637			
Epe motz. finantza inbertsioak	4.060	295	PASIBO KORRONTEA	250.020	228.507
Aldizkatzeagatikoko doikun	42	120	E/lab. zuzkidurak	51.456	52.684
Eskud. eta bst. aktibo likido baliokide			Zorrak epe lab.	75.254	73.390
batzuk (Diruzaintza)	203.403	118.174	Hartzek. eta ordain. beste kontu batz.	117.859	101.866
			Aldizkatzeagatikoko doikun	5.451	567
AKTIBOA, GUZTIRA	1.296.711	1.188.098	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	1.296.711	1.188.098



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

E. ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTU BATERATUA	Euroak milakotan	
	2021	2020
Zerga-sarrerak.....	2.511.429	2.194.875
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	215.560	108.057
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak.....	42.882	44.693
Amaitut. eta fabrikaz. dauden produk. izakinen bariazioa eta balioaren narriadura.....	350	(3.139)
Kudeaketa korronteko beste sarrera b.....	26.771	21.704
Hornidura soberakinak.....	24.012	26.397
KUDEAKETA KORRONTEKO SARRERAK GUZTIRA	2.821.004	2.392.587
Pertsonaleko gastuak.....	(186.099)	(182.278)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	(2.335.824)	(2.015.952)
Hornidurak.....	(10.098)	(7.875)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.....	(138.945)	(139.449)
Ibilgetua amortizatzea.....	(63.300)	(61.955)
KUDEAKETA KORRONTEKO GASTUAK GUZTIRA	(2.734.266)	(2.407.509)
KUDEAKETA KORRONTEAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	86.738	(14.922)
Ibilgetu ez finantzarioaren balio-narriadura eta besterengan. emaitza eta salgai dauden aktiboak.....	847	(517)
Korronteak ez diren beste partida batzuk.....	2.167	5.738
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZAK	89.752	(9.701)
Sarrera finantzarioak.....	170	171
Gastu finantzarioak.....	(7.477)	(7.582)
Finantza-aktibo eta -pasiboetako arrazoizko balioaren aldakuntza.....	(174)	(288)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak.....	(26.051)	(17.585)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA	(33.532)	(25.284)
EKITALDIAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA) GARBIA (GALERAK)	56.220	(34.985)



ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN 2021EKO KONTU OROKORRARI BURUZKO FISKALIZAZIO TXOSTENAREN INGURUKO ALEGAZIOAK

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. *Diputatuaren Kontseiluak Ekonomia eta Aurrekontuen Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 FAREN 125. artikuluan aurreikusitako aparteko prozedura bitartez, GOFEn 2021eko 2,3 milioi euroren gastuak baliokidetu ditu; gastu horiek, baina, Artekartzaren edo Kontabilitateko Zerbitzuaren txosten negatiboa jaso zuten, organo eskudunaren alde aurreko onespenerik ez zutelako (ikus A.7.1).*

ALEGAZIOA

Aurreko espedienteetan abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Erregimenari buruzkoak, jasotako prozedurak xedatzen duenez jardun du Foru Gobernu Kontseiluak, hirugarrenei kalteak saihesteko, barne kontroleko organoek kontratuei buruzko araudian edo lankidetzaz hitzarmenean bertan ez betetzeak sumatu zituzten espedienteen izapidetzea baliozkotuz.

Adierazi behar da baliozkotutako gastu osoa (dena, 6,2 mila euro izan ezik) espediente bakar bati dagokiola: "Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren kontratazioa", GOFek 2018an esleitua. Kontratu hori 2021ean luzatzea zegoen aurreikusita, baina hiru loteren enpresa adjudikaziodunek uko egin zioten luzapenari. Herritarrei zerbitzu hori ez ematea ezinezkoa zenez, kontraturik ez izan arren, zerbitzu hori ematen jarraitu behar izan zen, kontratu berriak adjudikatu artean. Gastu hori guztia zerbitzu horrengatik 2021eko urtarriletik uztailera bitartean egindako fakturei dagokie; hau da, aipatutako egoerak iraun bitarteko hilabetei.

2. *IFBSk, Indesa 2010 SLk, Arabako Kalkulu Zentroa SAk eta Añanako Gatz Harana Fundazioak zenbait zerbitzu eta hornidura kontratatu dituzte publikotasun eta lehia printzipioak bete gabe (ikus A.7.2, A.7.5 eta A.7.6).*

	Euroak
GOF.....	359.559
Indesa 2010 SL.....	67.929
Kalkulu Zentroa SA.....	76.410
Añanako Gatz Harana Fundazioa.....	51.949



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

INDESA 2010 SLk kontratatutako galdaren mantentze zerbitzuari dagokionez, esan behar da 2020ko abenduaren 11n prozedura irekiaren bidez onartu zela Indesa 2010 SLko garbategiko lurrin instalazioen, ur bero sanitarioaren instalazioen, galdara gelako elikadura uren tratamendurako instalazioen eta lurrin galdarakipizteko zerbitzuaren mantentze zuzentzaile eta prebentiboko zerbitzua kontratatzeko espedientearen lizitazioa. Kontratuaren gehieneko aurrekontua 102.840,00 euroak zen, gehi 21.596,40 euroak (BEZa % 21). Guztira, 124.436,40 euroak ziren, eta lau urteko iraupena zuen. Prozedura hori EAeko kontratazio plataforman argitaratu zen, eta huts deklaratu zen eskaintzak ez aurkezteagatik, Gerentziako Zuzendaritzak 2021eko urtarrilaren 11n emandako ebazpenaren bidez.

Hori dela eta, lizitatutako kontrataziorako lizitatzailerik ez dagoenez, zerbitzua ematen zuen enpresarekin jarraitu behar izan da, zerbitzua ezin baita eten.

Are gehiago, esan behar da INDESA 2010 SLk aurretiazko kontsultak egin zizkiela sektoreko hainbat enpresari, 2023an egin zen lizitazioa prestatzeko, baina berriro hutsik geratu zen.

Centro de Cálculo Saren kasuan, adierazi behar da HKEEk emandako iritzia aldi baterako laneko enpresa batek zerbitzuak emateagatik lortutako erosketa- bolumenari buruzkoa dela. Oro har, zerbitzu mota horiek noizbehinka eta hondar gisa kontratatu ohi dira, langileen aldi baterako absentziak betetzeko, eta kontratu txikien gehieneko zenbatekora egokitzen dira, baina, salbuespen gisa, 2021ean zenbateko hori gainditu egin da; izan ere, ordeztutako pertsonak ustekabeko konplikazioak izan ditu, eta, beraz, haren baja medikoak ezohiko iraupena izan du; hori izan da ordeztu pertsona kontratatuzko arrazoia.

Gaineratu behar da lan arloko legeria osorik errespetatu dela, ordainsariari eta hitzarmena betetzeari, enpresako langileen ordezkariarekin komunikatzeari eta ordeztuaren lan eskubideei dagokienez.

Honako hauek dira Añanako Gatz Harana Fundazioak HKEEren iritziz bidegabe kontratatutako zerbitzuak:

- Gatza garbitzeko handizkako zerbitzua, 30.369 euroko gastuarekin 2021eko ekitaldian.

Kontuan izan behar da adierazitako gastuaren zifra bi prestazioren batura dela. Bi prestazio horiek desberdinak direla uste da, baina kontratista berak hartu ditu bere gain. Bakoitzak bere autonomia eta substantibotasuna du, eta modu independentean aprobeitza daitezke: batetik, merkataritza sozietate horri erosketak kudeatzeko zerbitzuak ordaindu zitzaizkion, eta, bestetik, gatza garbitzeko handizkako zerbitzuak; azken prestazio horrek soilik zerbitzuen kontratuetarako aurreikusitako muga gainditu zuen.

Prozedura akats hori 2022an konpondu da, Añanako Gatz Harana Fundazioak 2022ko ekitaldian prozedura irekiaren bidezko nahitaezko lizitazioa sustatu ondoren.

- Kutxatilen hornidura. Ekitaldian egikaritutako zenbatekoa 21.580 eurokoa da.

Añanako Gatz Harana Fundazioak kutxatilik hornitzeko lizitazioa sustatu bazuen ere, prozedura hutsik geratu zen, proposamenik ez zegoelako. Inflazioa, prezioen ezegonkortasuna eta energiaren, paperaren/kartoiaren eta garraioaren kostuen igoera zirela



eta, besteak beste, kontratazio espedientea huts deklaratu ondoren, kontsultatutako hornitzaile batek ere ez zuen inolako interesik agertu aipatutako hornidurarako konpromisoa hartzeko prezio finko, zehatz eta aldaezin baten truke, kontratua gauzatu bitartean; beraz, ezinezkoa izan zen hura esleitzea, bai prozedura irekiaren bidez, bai prozedura negoziatuaren bidez. Hori dela eta, Añanako Gatz Harana Fundazioak hornidura erosi behar izan zion horretarako prest zegoen hornitzaile bakarrari; unean uneko erosketak egin eta prezioa zehaztu zen.

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

III.2 ZERGA-SARRERAK

AFAk eskuz kudeatzen ditu egoera berezietan emandako geroratze eta zatikapenak, geroratze kontua, errekurritutako zerga-zorra eta ordaindu gabeko zorra Derrigorrezko diru-bilketa agentziara igortzea. Kudeaketa-informazioaren kalitatea hobetu behar luke prozesuak automatizatu eta diru-bilketa zerbitzuak emandako informazioa kontabilitatean jasoz.

ALEGAZIOA

Esan behar da ekonomia, aurrekontuak eta finantzak kudeatzeko aplikazio informatiko berri bat ezarri dela eta Arabako Foru Aldundiaren proiektu bat abian dela, zeinaren irismenetan zerga sarreren tratamendua sartzen baita, aurreko paragrafoan jasotako gomendioan adierazitako ildotik.

III.3 KONTRATAZIOA

AFAk 2021ean gauzatutako 13 espedienteren lagina aztertu dugu, guztira 16,1 milioi euro egin dutenak, eta aurreko urteetan esleitutako 22 espedienteren jarraipena egin dugu, 2021ean 36,8 milioi euroren egikaritza izan dutenak (ikus A.7.1). Zera ikusi dugu:

- *Ez da kontratatzailearen profilak jaso behar duen 8 espedienteri buruzko informazio edo dokumentazio guztia jaso, hala nola memoria justifikagarria, txostenak, aktak edo kontratuak (1, 3, 4, 5, 6, 9, 10 eta 11 zk. espedienteak).*

ALEGAZIOA

Kontratatzailearen profilean dokumentazio jakin bat ez argitaratzeari buruzko oharrari dagokionez, administrazio kontratazioa arautzen duten printzipioak betetzeari eragiten ez dioten omisio puntualak dira. Kontratua argitaratzen ez denean bereziki, ez da publizitate printzipioa urratzen, jasota baitago adjudikazioaren datu nagusiak (epea, adjudikazioduna eta zenbatekoa) argitaratu direla kontratatzailearen profilean.

Nolanahi ere, ez argitaratze hori ez da gertatu honako espediente hauetan:



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

1. *AFA, GOFE, GFE, AFS eta Indesa 2010 SLrako aseguru-polizak, 2., 3., 5. eta 8. loteak: A4 oharra.* Proposamen ekonomikoen irekiera akta argitaratuta dago (A gutun azalak), espedientean dagoen egintza publiko bakarra, ez baitago formulen bidez ebaluatu ezin den irizpiderik, B gutun azaletan eskaintzak bereizita aurkeztea eskatzen duenik.
 3. *A-126 errepidea 39,160 KParen eta 40,480 KParen artean (Bernedoko industrialdea) egokitzeko eraikuntza proiektua: B4 oharra.* Berandu samar bada ere, kontratuaren formalizazioa argitaratuta dago.
 4. *Foru Sareko zenbait errepidetan errodadura geruza birgaitzeko eta berriro jartzeko proiektua. 2021. urtea: B4 oharra.* Berandu samar bada ere, kontratuaren formalizazioa argitaratuta dago.
 5. *A-3226 errepidean Moredako zeharbidea egokitu eta urbanizatzeko eraikuntza proiektua: B4 oharra.* Kontratuaren formalizazioa argitaratuta dago.
 6. *A-3604 errepidea Miñaogutxin (Araba) egokitu eta urbanizatzeko eraikitze proiektua: B4 oharra.* Kontratuaren formalizazioa argitaratuta dago.
 9. *Arabako parke naturalen kudeaketa integraleko zerbitzua.* Kontratuaren formalizazioa argitaratuta dago.
 10. *Mandaitako hondakin uren isurketak Iruña Okako eskualdeko HUARA lotzeko proiektu aldatuaren obrak.* A gutun azalak irekitzeko akta argitaratuta dago.
 11. *Laguntza teknikoko zerbitzua aztertzeko, idazteko eta gainbegiratzeko, Arabako hiri hondakin solidoak tratatzeko plantetako zatiki organikoa, bioegonkortua eta errefusaren balorizazioa egiteko.* Kontratuaren formalizazioa argitaratuta dago.
- *2,5 milioitan esleitutako obra-espediente baten eta zerbitzu-espediente baten pleguetan, irizpide kualitatiboen gutxieneko atalasea hautaketa-prozesuan jarraitzeko puntuaren % 50etik beherakoa da (8. eta 9. espedienteak).*

ALEGAZIOA

Ez dator bat 8. espedienteari buruz egindako oharrarekin (Arraia-Maeztuko Mina Luciaren erabilera publiko eta ekoturistikorako segurtasun, finkatze eta egokitzea); izan ere, gutxieneko atalase hori % 60koa izan zen kasu honetan, formulen bidez ebaluatu ezin ziren esleipen irizpideak (50 puntu) honako hauek baitziren:

- Planteamendu teknikoa eta gauzatzeko proposamen metodologikoa. Proposamenaren edukia eta xehetasun maila. Kontratazioaren xedearen ezaugarri eta berezitasunekiko egokitasuna eta egokitzapena. Lan eremu zehatzaren, kasuistikaren eta baldintza operatiboen ezagutza maila. 30 puntu gehienez.
- Lanen programa eta horiek gauzatzeko antolaketa teknikoa. Proposatutako lanen programazioaren kalitatea eta xehetasun maila, talde teknikoaren antolaketa planteamenduaren egokitasuna eta koherentzia, ezarritako zereginak eta proposatutako



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

programazioa garatzeko eta emango den zerbitzuaren berezitasunetara egokitzeko. 20 puntu gehienez.

Eta formulen bidez ebaluatu ezin diren esleipen irizpideen balorazioan gutxienez 30 puntu lortzen ez dituzten eskaintzak kanpoan utziko zirela ezartzen zen.

- *682.906 euroren kontratu bat (5. espediente) adjudikatu bitartean igarotako denborak gehienezko epea gainditzen du. 2,8 milioi euroan esleitutako zerbitzu-espediente batean 15 egun baino gehiago igaro dira kontratua formalizatu eta kontratatzailearen profilean argitaratu denetik (1. espediente). Gainera, 5,4 milioi euroan esleitutako hiru zerbitzu-espedientetan (1, 7 eta 9 zk. espedienteak) 10 egun baino gehiago igaro dira formalizatu eta EBAOra bidali bitartean.*
- *Hilabete baino gehiago igaro da kontratua formalizatu zenetik zuinketa-akta sinatu arte; gainera, hilabeteko epea gainditu da kontratua formalizatu denetik segurtasun-plana onartu den arte, 669.952 euroan esleitutako obra-espediente batean (8. espediente).*
- *Guztira 20,6 milioi euroan esleitutako 3 kontraturen obra-ziurtagiriak lanak egin eta hurrengo hilaren lehen hamar egunak igaro ondoren jaulki dira (5, 10 eta 26 zk. espedienteak).*
- *Hiru hilabete baino gehiago igaro dira 571.120 euroan esleitutako obra-espediente bat jaso eta azken ziurtagiria eman denetik (27. espediente).*

ALEGAZIOA

Aurreko paragrafoetako oharrak kontratuei buruzko araudian bertan aurreikusitako izapideetarako ezarrita dauden hainbat epe ez betetzearen ingurukoak ziren; alabaina, Arabako Foru Aldundiaren barne kontrolaz arduratzen diren organoek horretaz konturatu dira kasu gehienetan, eta ez dira Administrazioako kontratazioak eraentzen dituzten irizpideak urratu.

- *Kontratatzailearen profilean ez dago jasota 57,9 milioi euroan esleitutako 7 espediente luzatu edo aldatu direnik (17, 19, 21, 23, 24, 25 eta 26 zk. espedienteak).*

ALEGAZIOA

Kontratatzailearen profilean dokumentazio jakin bat ez argitaratzeari buruzko oharrari dagokionez, administrazio kontratazioa arautzen duten printzipioak betetzeari eragiten ez dioten omisio puntualak dira. Omisio horietako batzuk 2021ean administrazio kontratazioko plataforman izandako aldaketaren ondorio izan dira; izan ere, aldaketa horrek zenbait difuntzionalitate eragin zituen aurreko bertsioan izapidetutako espedienteetan, eta haien exekuzioa luzatu egin zen 2021. urtean eta hurrengoetan.

Nolanahi ere, ez argitaratze hori ez da gertatu honako espediente hauetan:

19. *Telekomunikazio-zerbitzuak ematea. 2021ean aldatua: C4 oharra.* 2021eko aldaketa argitaratuta dago. Argitalpen fitxara sartuz gero, kontratuaren erlaitzean, argitaratutako kontratuaren aldaketaren datuak ikus daitezke.
 21. *A.M. Energia elektrikoaren horniduran oinarritutako kontratua (zerbitzu orokorrak): C4 oharra.* Espedientearen argitalpen fitxan, kontratuaren erlaitzean, jasota daude jada oinarritutako kontratuan egindako aldaketak. Kontuan izan behar da oinarritutako kontratuak kontratazio plataforman sartzeko beharrezkoa dela espediente berri bat sortzea, esparru akordioaren lizitazio espedienteari lotua, eta bere kontratu propioa izango duela. Horren gainean egin ahal izango dira egoki diren aldaketak edo luzapenak, esparru akordioko kontratuarekiko independenteak.
- *Obra ziurtagiriak edo emandako ondasun edo egindako zerbitzuen kontratuan erabakitakoarekiko adostasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak atzerapenez onartu dira 11 kontratutan, ondasunak egiaz entregatu edo zerbitzua eman eta hurrengo hogeita hamar egunak igaro ondoren (8, 15, 16, 17, 19, 23, 25, 28, 29, 30 eta 32 zk. espedienteak). Kopuru metatuak 28.355 eurorenak izan ziren 2021ean esleitutako kontratuetan, eta 1,9 milioi eurorenak aurreko ekitaldietan esleitutako kontratuetan.*
 - *Prezioaren ordainketa egin da obra ziurtagiriak edo emandako ondasun edo egindako zerbitzuen kontratuan erabakitakoarekiko adostasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak onartu zirenetik 30 egun igaro ondoren, 9 kontratutan (11, 15, 16, 20, 21, 23, 26, 27 eta 33 zk. espedienteak). Kopuru metatuak 26.993 eurorenak izan ziren 2021ean esleitutako kontratuetan, eta 1,3 milioi eurorenak aurreko ekitaldietan esleitutako kontratuetan.*

ALEGAZIOA

Kontratuei buruzko araudian kontratua behar bezala gauzatu dela egiaztatzen duten agiriak onartzeko ezarritako epeak gainditu direla dioten oharrei dagokienez, esan behar da, ordainketa egiteko eta prezioa ordaintzeko, oro har, ez direla oso esanguratsuak izan Arabako Foru Aldundiaren jardueraren multzoan, ekitaldiko fakturen % 4,75 baino ez baita fakturak kontratuei buruzko araudian ezarritako gehieneko epea baino beranduago ordaindu diren eragiketen ehunekoa. Nolanahi ere, 2021ean erregistratutako fakturak ordaintzeko batez besteko epea 18,03 egunekoa izan da, egindako gastuaren egiaztatzea onartu zen egunetik erakundeak materialki ordaindu zuen egunera arte igarotako egun naturalak kontuan hartuta, eta batez bestelegezko epea bete dela egiaztatzen du horrek.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2021ean egindako ordainketak	OBBE (egunak)	Ordainketa kop. Legezko epearen barruan	Guztirako zenbatekoa	Ordainketa kop. Legezko epetik kanpo	Guztirako zenbatekoa
1. hiruhilekoa	17,1	1687	12.182.440,28	67	325.555,61
2. hiruhilekoa	16,31	2166	11.342.141,94	46	649.963,62
3. hiruhilekoa	21,94	1729	12.228.276,81	241	2.440.392,63
4. hiruhilekoa	16,7	2299	17.984.461,51	37	499.325,24
Egiteke dauden eragiketak	Egin gabeko OBBE (egunak)	Egiteke dauden eragiketen kop. Legezko epearen barruan	Guztirako zenbatekoa	Egiteke dauden eragiketen kop. Legezko epetik kanpo	Guztirako zenbatekoa
4. hiruhilekoa	6,38	1580	10.069.143,28	24	207.646,38

- Ez dago jasota kontratuaren betearazpena gainbegiratzeko arduraduna izendatu denik GOFek 4,1 milioi euroan esleitutako 6 espedientetan (1, 2, 3, 6, 8 eta 9 zk. espedienteak) eta GFEk 420.010 euroan esleitutako 4 kontratutan (1, 2, 3 eta 4 zk. espedienteak).

ALEGAZIOA

Aurreko oharrari dagokionez, aipatu behar da kontratazioak arautzen dituen agiriek hau ezartzen dutela:

“13.1.- OBREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA. Hitzartutako hori behar bezala betetzen ote den begiratzeko, koordinatzeko eta zaintzeko arduraduna du kontratuko zuzendaritzak, eta titulu egokia eta behar bestekoa izan behar du.

Hainbat laguntzaile eduki ditzake agindupean bere lanak egiteko. Laguntzaileak beren titulu profesionalaren edo ezagutza berezien arabera beteko dituzte dagozkien jarduerak eta kontratuaren zuzendaritzan parte hartuko dute.

Kontratua formalizatzen denetik hamabost egun natural pasatu baino lehen Administrazioak kontratazio organoak izendatutako zuzendariaren berri emango dio kontratistari, eta zuzendariak gauza bera egingo du bere laguntzaileei dagokienez. Aldaketak idatziz jakinarazi beharko zaizkio enpresa kontratistari.”

Egia bada ere formalki adierazitako kasuetan ez dela egin agirietan aipatutako jakinarazpena, SPKLren 311. artikulua ezartzen du, kontratuaren arduradun izendatu ez bada, eginkizun hori kontratazio organoen mendeko zerbitzuek beteko dutela. Kasu guztietan, kontratazio organoaren mendeko unitate espezializatuak egin dituzte kontratua, haren exekuzioa eta interes orokorra behar bezala betetzen ari direla egiaztatzeko, koordinatzeko eta zaintzeko lanak.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- *Erakunde hauen kontratatzailearen profilak ez du jaso beharko lukeen informazio guztia jasotzen, hala nola, memoria justifikagarria, txostenak, aktak, ebazpenak edo kontratuak:*
 - *GOFE: 4,1 milioi euroan esleitutako 7 espedientetan (1, 2, 3, 4, 6, 7 eta 10 zk. espedienteak).*

ALEGAZIOA

Kontratatzailearen profilean dokumentazio jakin bat ez argitaratzeari buruzko oharrari dagokionez, administrazio kontratazioa arautzen duten printzipioak betetzeari eragiten ez dioten omisio puntualak dira. Kontratua argitaratzen ez denean bereziki, ez da publizitate printzipioa urratzen, jasota baitago adjudikazioaren datu nagusiak (epea, adjudikazioduna eta zenbatekoa) argitaratu direla kontratatzailearen profilean.

Bestalde, HKEEk adierazitako omisioak ohartarazita, kontratatzailearen profilean argitaratu da oro har dagokion dokumentazioa.

- *AFS: 59.465 euroan esleitutako 2 espedientetan (1 eta 2 zk. espedienteak).*

ALEGAZIOA

1. espedientearen kasuan, ezin da bat etorri kontratatzailearen profilean dokumentazio jakin bat argitaratu ez izanari buruzko oharrarekin; izan ere, kontratuaren formalizazioa 2021eko azaroaren 5ean argitaratu zen kontratatzailearen profilean.

- *Ez da errespetatu esleipena jakinarazi zenetik kontratua sinatu arteko 15 egun balioduneko gutxieneko epea GOFEk 333.442 euroan esleitutako zerbitzu-kontratu batean eta hornidura-kontratu batean (7. eta 10. espedienteak) eta AFSk esleitutako 32.368 euroren hornidura-kontratu batean (2. espedienteak).*

ALEGAZIOA

Aurreko oharrak, alegia, kontratazio errekurtsu berezia jartzearen eraginkortasuna bermatu nahi duen kontratu araudiak ezarritako epea ez betetzeari buruzkoak, ez du esan nahi administrazio kontratazioa arautzen duten printzipioetako bat ere urratu denik, ezta espediente horietan birtualtasunik izan duenik ere, are gehiago, hiru kasu horietan, prozeduran interesatutako inork ez bazuen errekurtsu hori jarri.

- *Atzerapenez onartu dira emandako ondasun edo egindako zerbitzuen kontratuan erabakitakoarekiko adostasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak, izan ere ondasunak egiaz entregatu edo zerbitzua eman denetik hogeita hamar eguneko epea gainditu da:*



- *GOFE: bi kontratutan (2 eta 20 zk. espedienteak). Kopuru metatuak 31.900 eurorenak izan ziren 2021ean esleitutako kontratuetan, eta 2.795 eurorenak aurreko ekitaldian esleitutako kontratuetan.*
- *GFE: 2 kontratutan (1 eta 2 zk. espedienteak). Metatutako zenbatekoak 92.768 euro izan ziren.*
- *AFS: kontratu batean (2. espedienteak). Zenbatekoa 9.414 euroa izan zen.*

ALEGAZIOA

Aurreko paragrafoan jasotako oharrak aipatzen du ez dela bete kontratu araudiak berak aurreikusitako izapide baterako ezarritako epea (harrera akta egitea), eta horrek ez du administrazio kontratazioa arautzen duten printzipioetako bat ere urratzen.

- *Emandako ondasunak edo zerbitzuak kontratuan xedatutakoarekin bat datoze la egiaztatzen duten agiriak onartu eta hogeita hamar egun igaro ondoren ordaindu da prezioa:*
 - *GOFE: espediente batean (1. espedienteak). Metatutako zenbatekoa 3.522 euro izan zen.*
 - *GFE: espediente batean (4. espedienteak). Metatutako zenbatekoa 2.951 euro izan zen.*

ALEGAZIOA

Aurreko oharrari dagokionez, eta txosten honen A7 eranskinetik ondorioztatzen denez, ohiz kanpoko kasuak direla ikus daiteke: GOFEn, 3,5 mila euroko faktura bat, 37 mila euroko guztizkotik, aztertutako 21 espedienteetako batean; GFEn, 2,9 mila euroko faktura bat, 67 mila euroko guztizkotik, aztertutako 9 espedienteetako batean.

Gainera, oro har, adierazi behar da salbuespen hori bereizgarria dela Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen jardueraren barruan, hau da, ordainketa kontratazioari buruzko araudian ezarritako gehieneko epea baino beranduago egin den kasuen ehunekoia ekitaldiko faktura guztien % 0,87 dela, memorian jasotako ordaintzeko epeari buruzko informazioan nabarmendu denez. Ondoren jaso da informazio hori:



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2021ean egindako ordainketak	OBBE (egunak)	Ordainketa kop. Legezko epearen barruan	Guztirako zenbatekoa	Ordainketa kop. Legezko epetik kanpo	Guztirako zenbatekoa
1. hiruhilekoa	8,68	2876	11724248,26	18	132254,18
2. hiruhilekoa	13,73	2938	11600030,82	61	1233437,45
3. hiruhilekoa	8,9	2799	11543908,23	13	444574,32
4. hiruhilekoa	9,35	3034	13187197,06	10	525609,02
Egiteke dauden eragiketak	Egin gabeko OBBE (egunak)	Egiteke dauden eragiketen kop. Legezko epearen barruan	Guztirako zenbatekoa	Egiteke dauden eragiketen kop. Legezko epetik kanpo	Guztirako zenbatekoa
4. hiruhilekoa	2,77	355	487363,32	0	-

Gazteriaren Foru Erakundearen kasuan ere, salbuespen hori bereizgarria da bere jarduera osoan; izan ere, ordainketa kontratazioari buruzko araudian ezarritako gehieneko epea baino beranduago egin den kasuen ehunekoa ekitaldiko faktura guztien % 0,29 da, memorian jasotako ordaintzeko epeari buruzko informazioan nabarmendu denez. Ondoren jaso da informazio hori:

2021ean egindako ordainketak	OBBE (egunak)	Ordainketa kop. Legezko epearen barruan	Guztirako zenbatekoa	Ordainketa kop. Legezko epetik kanpo	Guztirako zenbatekoa
1. hiruhilekoa	9,59	161	134.020,72	1	215,45
2. hiruhilekoa	9,52	275	182.485,09	0	-
3. hiruhilekoa	11,69	315	834.281,69	0	-
4. hiruhilekoa	10,76	272	662.679,22	2	8.519,50
Egiteke dauden eragiketak	Egin gabeko OBBE (egunak)	Egiteke dauden eragiketen kop. Legezko epearen barruan	Guztirako zenbatekoa	Egiteke dauden eragiketen kop. Legezko epetik kanpo	Guztirako zenbatekoa
4. hiruhilekoa	0,56	24	55.859,63	0	-

- *GOFEn 567.750 euroko hornidura-kontratu batean, bi lotetan esleitutakoan, loteetako baten kontratua formalizatzea, 286.086 euroan esleitua, kontratua gauzatzen hasi ondoren egin da (4. espedientea).*



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Aurreko paragrafoan jasotako oharrak aipatutako izapidea ez betetzeari egiten dio erreferentzia, eta horrek ez du esan nahi administrazio kontratazioa arautzen duten printzipioetako bat ere urratu denik, kontratua adjudikatzeko ebazpena enpresa adjudikaziodunari jakinarazi baitzitzaion.

Adierazitako printzipioetako bat ere urratzen ez dela erakusteko, gaineratu behar da SPKLk berak onartzen duela kontratua administrazio dokumentu baten bidez ez formalizatzea prozedura ireki sinplifikatu laburtuaren kasuan (159.6 artikulua).

- *10 egun baino gehiago igaro dira kontratua formalizatu eta EBAOra bidali denetik GOFek 405.398 euroan esleitutako espediente batean (2. espediente).*

ALEGAZIOA

Aurreko oharrak, zeina kontratu araudiak ezarritako epe bat ez betetzeaz ari baita, ez du administrazio kontratazioa arautzen duten printzipioetako bat ere urratzen.

- *IFJk 122.100 euroan esleitutako zerbitzu-espediente batean (4. espediente) eta AFSk 32.368 euroan esleitutako hornidura-espediente batean (2. espediente), 15 egun baino gehiago igaro dira kontratua formalizatu eta kontratatzailearen profilean argitaratu diren arte. Kontratu horiek ez daude argitaratuta Eusko Jaurlaritzaren Kontratuen Erregistroan (Revascon).*
- *15 egun baino gehiago igaro dira IFJk 161.122 euroan esleitutako zerbitzu-espediente bat eta hornidurako beste bat (3. eta 4. espedienteak) eta AFSk 32.368 euroan esleitutako hornidura-espediente bat (2. espediente) esleitzeko ebazpena eman eta kontratatzailearen profilean argitaratu diren arte.*

ALEGAZIOA

Aurreko oharrak, zeina kontratu araudiak ezarritako epe bat ez betetzeaz ari baita, ez du administrazio kontratazioa arautzen duten printzipioetako bat ere urratzen.

- *AFSk kontratuaren mugaeguna baino bi hilabete lehenago eman du luzapenaren aurre-abisua, 99.331 euroan esleitutako zerbitzu-espediente batean (3. espediente).*

ALEGAZIOA

Aurreko paragrafoan jasotako oharrak SPKLren 29.2 artikuluan adierazitako epeari egiten dio erreferentzia. Epe hori ez betetzeak ondorio bakarra du: enpresa kontratista luzapenetik salbuestea, eta horrek ez du balio gabetzen geroko une batean baina kontratuaren



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

iraupenaren hasierako epearen barruan egindako izapidea. Apartatu horrek honela dio, hitzez hitz:

“Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du, eta nahitaezkoa izango da enpresaburuarentzat, baldin eta aurreabisua kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez ere bi hilabete lehenago egiten bada; kontratuaren baldintza-agiriak hori baino epe luzeagoa ezar dezake. Aurreabisuaren betebeharetik salbuetsita daude bi hilabete baino gutxiago irauten duten kontratuak”.

Hori dela eta, ez gatoz bat adierazitako inguruabarra kontratazio espedientearen kudeaketako akats gisa hartzearekin, are gehiago enpresa kontratistak kontratuaren luzapena onartu duenean.

- *Aurreko ekitaldietan Indesa 2010 SLk adjudikatutako kontratuak nola gauzatu diren aztertzean, ikusi da unitate-prezioen arabera esleitutako zerbitzu-espediente batean (6. espediente), pleguek 70.368 euroko gehieneko lizitazio-aurrekontua eta egin beharreko zerbitzu-kopurua handitzeagatik hainbat aldaketa aurreikusen zituztela. 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako sinatutako luzapenean exekutututako zenbatekoak % 12,73 gainditu du gehieneko aurrekontua, egindako zerbitzuen kopurua handitu baita, pleguetan aurreikusitako unitateen balioa gainditu gabe. Sozietateak kontratuaren aldaketa izapidetu behar zuen.*

ALEGAZIOA

HKEEk egindako oharra onartuta, adierazi behar da SPKLren 207. artikuluan aurreikusitako kontratua aldatzeko prozedura bete ez arren, aldaketa horretarako betekizun materialak bete zirela, egikaritutako zenbateko gehigarriak azkenean ez baitzuen gainditu aldaketa horietarako agirietan aurreikusitako muga.

- *Añanako Gatz Harana Fundazioaren gatza ontziratzeke zerbitzuaren kontratuan - 2020an 417.970 euroren gehieneko aurrekontuarekin esleitutakoan, kontratuaren iraupen osoan gauzatutako zenbatekoa % 11,86 handitu da. Fundazioak “aurreikusi gabeko aldaketa”-espediente bat izapidetu behar zuen, SPKLn jasotako baldintzetan.*

ALEGAZIOA

HKEEk egindako oharra onartuta, adierazi behar da SPKLren 207. artikuluan aurreikusitako kontratua aldatzeko prozedura bete ez arren, administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusi gabeko aldaketetarako 205. artikulua 2.a) apartatuan zehazten diren betekizunak bete zirela:

- Ontziratze orduen gehikuntza, hasieran aurreikusitakoekin alderatuta, gatza ontziratzeke benetako premiari erantzuteko behar-beharrezkoak diren orduetara mugatu da. Izan ere, hasieran kontratatutakoez gain, prestazio gehigarriak behar izan dira, eta ezin izan da,



inola ere, kontratista aldatu egikaritze fasean. Alde batetik, arrazoi ekonomikoengatik, kontuan hartuta ekonomikoki ez litzatekeela eraginkorra izango ontziratze prestazioko ordu gehigarriak hirugarren bati adjudikatzea, hirugarren horrek bere giza baliabideak eta baliabide materialak atxiki beharko zituzkeelako, eta horrek fundazioak adjudikaziodunari benetan ordaindutako kostuak baino askoz kostu handiagoak eragingo lituzkeelako. Eta, bestetik, arrazoi teknikoengatik, horrek logistikan, kudeaketan eta kontratisten arteko zereginen koordinazioan eragozpen nabarmenak sortuko lituzkeelako.

- Kontratuaren zenbatekoaren aldaketak ez du gainditzen legez aurreikusitako hasierako prezioaren % 50eko muga.

Ondorioz, nahiz eta ez den zorrotz bete SPKLren 191. eta 153. artikuluetan aurreikusitako adopzio- eta formalizazio-prozesua, kontratazio-organoaren erabakia eta aldaketaren argitalpena gauzatu, entzunaldia eman zitzaion kontratistari, benetan beharrezkoak ziren orduen gehikuntzaren berri emateko.





ABREVIATURAS

AAD	Álava Agencia de Desarrollo, S.A.U.
AFS	Arabako Foru Suhiltzaileak - Bomberos Forales de Álava.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
CVFP	Consejo Vasco de Finanzas Públicas.
DF	Decreto Foral.
DFA	Diputación Foral de Álava.
DOUE	Diario Oficial de la Unión Europea.
FEPEL	Fondo de Estabilización de Participación de las Entidades Locales.
FOFEL	Fondo Foral de Financiación de Entidades Locales.
IFBS	Instituto Foral de Bienestar Social.
IFJ	Instituto Foral de la Juventud.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
IRPF	Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.
NF	Norma Foral.
SAD	Servicio de Ayuda a Domicilio.
SAAD	Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia.
SSPP	Sociedades Públicas.
THA	Territorio Histórico de Álava.
UCEIS	Unidad Comarcal de Extinción de Incendios y Salvamento.





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, 5 de febrero, y en su Programa de Trabajo para 2022, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del THA correspondiente al ejercicio 2021.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: se verifica el cumplimiento de la normativa aplicable al presupuesto, el endeudamiento, las operaciones financieras, el personal, la contratación de obras, servicios y suministros, la concesión de subvenciones y ayudas públicas y los ingresos de derecho público.
- Contables: se analiza si la Cuenta General se elabora conforme a los principios contables contenidos en la normativa que la regula.
- Análisis financiero de la liquidación presupuestaria de la Diputación Foral de Álava.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

La Cuenta General del THA (ver en www.araba.eus) comprende todas las operaciones presupuestarias, patrimoniales y de tesorería llevadas a cabo durante el ejercicio 2021 en:

- Diputación Foral de Álava.
- Instituto Foral de Bienestar Social, organismo autónomo administrativo encargado de la organización, gestión, prestación y ejecución de las actividades relacionadas con los servicios sociales.
- Instituto Foral de la Juventud, organismo autónomo administrativo dedicado a la formación y promoción integral de la juventud.
- Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava, organismo autónomo dedicado a la prestación del servicio de prevención, extinción de incendios y salvamento de Álava.



- Las Sociedades Públicas de DFA en las que su participación en el capital social es superior al 50%:

SOCIEDADES PÚBLICAS	% PARTICIPACIÓN	OBJETO SOCIAL
Álava Agencia de Desarrollo, S.A.U.	100	Promoción económica del THA.
Naturgolf, S.A.	99,98	Explotación del complejo Izki-Golf.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.	100	Servicios de explotación informática.
S.A. de Gestión del Patrimonio Cultural Edificado de Álava (Arabarri) (*)	100	Actuaciones de rehabilitación integrada. En liquidación.
Vías de Álava, S.A.U.	100	Construcción, conservación, mantenimiento y explotación de la autopista A-1 a su paso por el THA.
Indesa 2010, S.L.	99,94	Crear empleo para personas con discapacidad de Álava, siempre como centro especial de empleo.
Enargi Araba S.A.U.	100	Fomento e impulso de actividades relacionadas con la producción de energías renovables.

(*) En liquidación tras el acuerdo de disolución adoptado por la Junta General de 29 de junio de 2018.

- Las Fundaciones Forales:

FUNDACIONES FORALES	%PARTICIPACIÓN	FIN FUNDACIONAL
Fundación Artium de Álava	100	Gestionar y dirigir el Centro Museo Vasco de Arte Contemporáneo Artium de Álava.
Fundación Catedral Santa María (*)	40	Posibilitar la consolidación, restauración y rehabilitación de la Catedral Santa María de Vitoria - Gasteiz, así como la de su entorno urbano.
Fundación Valle Salado de Añana	98,04	Consolidación, restauración y rehabilitación integral del Valle Salado de Añana, así como su entorno, la comercialización de la Sal de Añana y la promoción y difusión turística del Valle Salado de Añana y su entorno en todas sus vertientes.
Fundación Kirolaraba	100	Promoción y desarrollo del deporte en Álava, con prioritaria atención al deporte de alto rendimiento no profesional.

(*) Participación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz en el fondo dotacional 40%.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD

